



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

110 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketak (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izan den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duena. Osoko Bilkurak baztertua (3. or.).

—Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

—Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzea. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzea. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako beka berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, biziki-detasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro hel diezaion Udako Euskal Unibertsitatearekin zuen lankidetzaren hitzarmenari. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Foru Lege proiektuari foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak eta Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordera igorriko da.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duena

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duena, baztertzea erabaki zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta

2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta

2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irradi-komunikazioko instalazioak antolatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitatean irradi-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori foru parlamentari Mllagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu eta 2001eko

uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2001eko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko irail-

ren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2001eko urriaren 25ean egin-dako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du

1. 2001eko bigarren seihilabetekoan gazteak sexualitatearen arloan hezi eta zaintzeko eskualde plan bat egin eta Nafarroako Parlamentura igor dezan, bertan onesteko. Plan horrek, besteak beste, honako ekintza hauek agindu beharko ditu:

a) Gazteei buruzko azterlanak egitea, haien jarrerak, iritziak eta sexu-praktikak ezagutu ahal izateko.

b) Familien, gazteen eta gazteekin lanean diharduten profesionalen prestakuntza indartzea, sexualitatearen inguruan izan beharreko jokabide-

ari eta horri loturiko arriskuen prebentzioari dagokienez.

c) Heziketa afektibo-sexualeko programak garatzea eskolako eta eskolaz kanpoko esparruetarako.

d) Esparru honetan diharduten erakundeen artean koordinatzeko egiturak eta prozedurak antolatzea.

e) Gazteei informazioa emateko sareak sustatzea, gazteek esparru afektibo/sexualeko laguntza, aholku-emate eta heziketari dagokienez dauden aukerak zeintzuk diren jakin ahal izateko eta euren ezagupenak hobetu ahal izateko.

f) Sexualitateari buruzko informazioa gehitzea eta helduei, gazteei eta haurrei zuzenduriko sentsibilizazio-kanpainak egitea; horretarako, argitalpenak egin eta jendearenganatuko dira.

g) Hezkuntza- eta informazio-materialak dituzten dokumentazio-funtsak sor daitezkeen bultzatzea. Bai emakumeari laguntzeko zentroetako profesionali, bai gazteei zuzenduta egonen dira, material horiek erabil ahal izan ditzaten, non dauden edo zeri atxikita dauden begiratu gabe.

h) Plan honetan garatu beharreko jarduerak guztietan, tratu berdintzaile bat emanen zaie aukera sexual guztiei, bazterkeriarik ez ezean hezteko.

2. Emakumeari Laguntzeko Zentroetan nera-beentzako sexu heziketako programak ezar daitezela berriro. Programa horiek, nahitaez, sexualitateari buruzko ezagutza berariazkoak dauzkaten profesionalak irakatsi beharko dituzte.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2001eko urriaren 25ean egin-dako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Bekak emateari buruzko erabakia berrazter dezan eta, gehienez ere hiru hilabeteko epean, “Mikel Larumbe” izena duen beka nori eman erabaki dadin.

2.- Aurrekoaren ezean, aipaturiko beka 2000n eta hurrengo urteetan Nafarroan eginiko ikerketan onenerako sari izateko eralda dadin.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2001eko urriaren 26an egin-dako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako plan bat egin dezan, bizikidetasun demokratikoari eta bakerako hezkuntzari buruzkoa hain zuzen

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bizikidetasun demokratikorako eta bakerako hezkuntzarako plan bat egin dezan, Nafarroako ikastetxeetarako. Plan hori Nafarroako lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendu beharko zaie, eta lehentasunezko xede hauek izanen ditu: bakerako heztea, Giza

Eskubideak errespetatzea, bortxazko jarrerren prebentziorako jokamoldeak ezartzea eta aniztasunarekiko errespetuan nahiz tolerantzian gauzaturiko balio demokratikoak erabiltzeko pizgarriak ezartzea.

Bakerako hezteko plan horren helburuen artean, honako hauek aipatu behar dira:

a) Balio demokratikoei eta pertsonen eskubide eta askatasunei buruzko prestakuntza.

b) Enpatia eta asertibitaterako komunikazio-gaitasunak.

c) Pentsamendu kritikoa eta pentsamendumalgutasuna.

d) Lankidetzan aritzea, helburu komuna lortzeko.

e) Zenbait balio eta jarrera, hala nola besteak errespetatzea, autoestimua, solidaritatea, lankidetzatza.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro hel diezaion Udako Euskal Unibertsitatearekin zuen lankidetzatza hitzarmenari

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2001eko urriaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro hel diezaion Udako Euskal Unibertsitatearekin zuen lankidetzatza hitzarmenari".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro hel diezaion Udako Euskal Unibertsitatearekin zuen lankidetzatza hitzarmenari

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Universidad Vasca de Verano/Udako Euskal Unibertsitatea" elkartearekin sinatua zeukan lankidetzatza-hitzarmenari euts diezaion, eta hitzarmen horretara bideraturiko aurrekontu-kontusaila urtero Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera gutxienezko neurrian gehitu dezan, 2001erako eta hurrengo urteetarako.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan Udako Euskal Unibertsitateak Iruñean bere jarduerak behar bezala egin ahal izateko beharrezkoak dituen lokal publikoak izan ditzan, 2001ean eta hurrengo urteetan.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--